



# ERREENTERIKO XENPELAR ZANARI

Orain argitaratzen ditugun bertsoak, gure Udal-Etxearen bidez artu ditugu. Dirudinez, bere egilleak norenak diran izenpetu gabe, Udal-Etxera bialdu ditu.

Bertso aukerak irakurriaz, egillea, nai ta naiez, errenderiarra degula ezin ukatu.

Gure bertsolari ez-ezagunari emendik dei bat egiten diogu: Nola edo ala berarekin egon al gindezke?

Bere ezaguera egitea guretzako oso atsegingarria izango litzake, aurrerantzean ere gurekin izan dedin esku artean darimakigun lana betetzen, au da, «OARSO», Madalenetan urte askotan ikus dezagun.

Zure berrien zai...

- Bertsoan bear det asi  
lege zarrari eutsi.  
Euskal-erriko sustrai garbiyak  
ez al du merezi.  
Nai nuke adierazi.  
Biotz guztitan itsatsi.  
Erreenteriko Xenpelar zeintzan,  
nai det erakutsi.
- Bertsolaria txit ona,  
biotz aundiko gizona.  
Eskriturako molde zarretan,  
azaltzen zaiguna.  
geroztikan ezaguna,  
denok maitatzen duguna,  
Euskal-Erriya bere sasoiyan  
alaitu ziguna.
- Boz luzian ta motzian.  
Batek nai zuan neurrian,  
Xenpelarrentzat bire guztiyak  
egokiyak zian.  
Asi aldi bakoitzian,  
beti aldarte onian.  
Ari muturra zeñek jiratu,  
asitzen zanian.

- Baserrin jαιο ta bizi.  
Bere famili ta guzi.  
Esan bezala bertso lanian,  
gaztetatik asi.  
Garai artako nagusi,  
iñork ezintzuan autsi.  
Bere egiyak entzunai ezta,  
batzuek igesi.
- Odol garbi euskalduna  
bere jatorritik zuna.  
Ezin ukatu aurrez aurrian  
garbi daukaguna.  
Bertsolariya txukuna,  
ale bat txarrik etzuna.  
Zorigaitzian gaztia zala  
mundutikan juna.
- Xenpelar iltziñan gazte,  
ala esaten digute.  
Baña zuretzat aztu geranik,  
etzazula uste.  
Gugandik zaude aparte,  
Zeruan oinbeste urte.  
Txoko txiki bat gorde zaiguzu,  
guretzat ainbeste.
- Bere bertsoa andiyak  
ain ziran txalogarriyak,  
ao zabalez aitortzen zuten  
bera ikusiyak.  
Gazte ginduzun utziyak,  
zeruko izar garbiyak.  
Orain bertako pesta jartzaille,  
Txirrita ta biyak.
- Bukatzeko azkenian  
bertsolariyan aurrian,  
arkitutzen naiz Xenpelarrekin  
itzegin nayian.  
Zu iltziñan aspaldian,  
gu berriz oso urrian.  
Besarkada bat anai zarata  
ikusian artian.